



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-07-15

VIIURTEA 1.754.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

NOUREDINE DHIMDI, MAHAMMAD SAE, MAHAMMAD AFZAL ETA JAWAD SAMADI ETORKINAK

«Hemengo festetara ohitu behar gara, gureak ezberdinak dira»

ALEGIA Karmen jaien iragarle izango den txupinazoa botako dute gaur udaletxetik herriko sei etorkinek

ESPERIENTZIA Festa Batzordetik «oso polita» izan dela adierazi dute eta beraiek ere «gogotsu» daude s



Nouredine Dhimdi, Mahammad Sae, Mahammad Afzal eta Jawad Samadi, herriko jaien iragarle izango dira. N.URBIZU



Irrintzi elkarteak antolatzen duen azoka Txermin ikastolan izango da. I.GARCIA

«Ez delako gure eskuduntza» Udalak ez ditu soldatak parekatuko

VILLABONA «ELAk helburu politikoko estrategia garatu du», dio ezker abertzaleak 6

MARIA LUISA IRASTORZA MUSIKARIA

«Nire lehen diskoak izan duen harrerarekin oso pozik nago»

TOLOSA 'Nostalgia' izeneko lanean «bere oroitzen guztiak» bildu ditu akordeoi joleak 2

Garagardo Azokak bihar irekiko ditu ateak, igandera arte

VILLABONA Irrintzi elkartearen lokala berritzeko erabiliko dute 13. edizioan aterako duten dirua 4



sarrerak



HITZAK harpidedunentzat **5 afari bikoitz** ditu

Uztailaren 16 eta 19 bitarte ospatuko den

Villabonako Garagardo azokarako

irekita 18:00etatik 1:00etara



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira arpidedun kodea eskura duzula osteguna 14:00ak arte.

herriko egunkaria **TXOKA hitza**

E Elkarrizketa

MARIA LUISA IRASTORZA ▶ Musikaria

«Oso pozik nago diskoak izan duen harrerarekin»

Musika ▶ 'Nostalgia' izeneko diskoa osatzen duten hamabi abestietan Tolosako akordeoi joleak bere oroitzapen guztiak bildu ditu.

HARRIET BELLOSO

Maria Luisa Irastorza (Tolosa, 1936) lehen diskoa argitaratu zuen duela hilabete batzuk. Bertan, bere ibilbideko abesti garrantzitsuenak aurkituko ditu entzuleak.

Nondik dator disko hau egiteko ideia?

Duela urtebete hasi ginen proiektu honekin. Familiakoek ideia polita zela zioten eta Elkar diskoetxera joan nintzen beraiekin hitz egitera. Produkzio eta grabaketa lan guztiak beraiek egingo zituztela esan zidaten, beraz, ez nuen zertan larritu. Diskoa atera zenetik salmentak nahiko ongi doaz eta jende asko gerturatu zait zoriontzera. Tolosara azken aldiz etorri nintzenean pertsona askok beraien diskoa sinatzeko eskatu zidaten eta Donostian berdina pasa zait. Oso pozik nago jendearen harrerarekin.

Zer aurkituko dugu bertan?

Diskoan hamabi abesti daude eta ordubeteko iraupena du. Nire ustez, errepertorioa nahiko zabala da. Mundu guztiak gustuko dituen generoak daude, adibidez, tangoa, amodiozko abestiak, Chopin eta Mozart bezalako autoreen lanak... Gainera, kalitate handiarekin grabatuta daude. Garai batean jotzen nituen abestiak berreskuratu nahi nituen eta osogustura aritu naiz jotzen, nahiz eta batzuk ahaztuta nituen. Bi abesti berri ere jo ditut, baina ohikoak bereziagoak dira niretzat.

Zergatik orain, hainbeste urte eta gero?

Nire familiari ondarea utzi nahi diot. Nire semeak ez didate inoiz jotzen ikusi eta horrek pena asko ematen dit. Nire bilobek ez zuten nire historia ezagutzen eta oso harrituta geratu dira nire lorpenak ikusi dituztenean. Lehen aipatu dizudan bezala, oso pozik nago disko honekin eta izan duen harrerarekin.

Zertan oinarritu zara abestiak aukeratzeko?

Ez naiz ezertan oinarritu abestiak aukeratzeko, bere garaian jotzen nituenak bildu nahi nituen soilik. Martxa Turkiarra, Mozart, ... Nire

ibilbidean garrantzitsuak diren abestiak daude disko honetan. Bartzuetan aldatetako egin ditugu eta oso ondo geratu dira. Grabaketa prozesuak urtebete iraun du eta denbora horretan gauza asko gertatu dira. Duela 8-9 hilabete akordeoi berria ekarri zidaten Italiatik eta denbora apur bat behar izan nuen ondo egokitzeko.

Ekitaldiren bat emateko asmorik baduzu?

Eszenatoki batera igotzeak beldurra ematen dit. Ez dut nire burua iraupen luzeko emanaldiak emateko gai ikusten, oso urduri egongo nintzateke hasieratik. Gaztea nintzenez ere oso urduri jartzen nintzen, gainera, garai horietan abesti gutxiago jotzen ziren, jaialdietan talde ugari egoten baitziren. Ekitaldiak arratsaldean izaten ziren eta gehienez bi edo hiru abesti jotzen nituen, orain horiez ingonuke egin. Nire etorkizuneko planetan ez dago lekurik kontzertuentzako, baina gonbidapen interesgarri bat jasoko banu ez nuke ezetz esango.

Zeintzuk dira, zure iritziz, zure ibilbideko mementorik esanguratsuak?

Parte hartu nuen lehendabiziko txapelketa oso berezia izan zen niretzat. Hernanin izan zen eta orduan 13 urte nituen. Lehiaketa horretan denak mutilak ziren eta izugarri harritu ziren ikusi nindutenean. Maila altuko bi pieza jo nituenean partaide gehienak erretiratu egin ziren, garaipena nire izango zela argi baitzegoen. Bertan zeuden ikusle guztiak haur

«Garai batean jotzen nituen abestiak berreskuratu nahi nituen; oso pozik nago»

prodijioa nintzela uste zuten, piezahoriek oso zailak baitziren. Saria diploma bat zen, baina aldateta txiki bat egin behar izan zuten, garailearen izenaren ondoan Don jartzen baitzuten eta ni neska nintzen. Agiria egin zuten gizonari deitu behar izan zioten aurreko hitza ezeztatzeko eta Doña jartzeko.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Zein izan da jaso duzun saririk bereziarena?

Pasaia-Antxon egin zen lehiaketa batean larruzko nezeser bat irabazi nuen, baina etxean ireki nuenean gizonetako produktuez beteta zegoela ikusi nuen. Garai horretan oso emakume gutxi ikusten ziren txapelketetan, ez zen orain bezala. Agian, nire arrakasta handiena txirridularitzako Espainiako Itzulian jotzea izan da. Nire ikuskizuna etapa guztien amaieran hasten zen eta jende ugari gerturatzen zen ikustera eta dantza egitera.

Nolakoak izan ziren Espainiatik egin zenituen birak?

Los Xey banda ospetsuarekin batera ikuskizun ugari eman nituen Espainian zehar. Nire aitaren dendan egiten nuen lan, beraz, bira horiek oporretara joatea bezalakoak ziren niretzat. Emanaldietan txandakatzen joaten ginen eta iraupen luzeak izaten ziren. Iruko antzokian oso kontzertu ikusgarria

eskaini genuen, bi mila pertsona inguru etorri ziren eta aparteko giroa egon zen. Duela gutxi lagun min batekin egon nintzen eta kontzertu honetaz hitz egiten egon ginen. Jendea urte horietako emanaldiez oroitzen da oraindik eta hori harrigarria da.

Zergatik utzi zenituen akordeoia eta zuzeneko emanaldiak?

Oso gaztea nintzela hasi nintzen

«Emanaldi berezi bat eskaintzeko gonbidapena jasoko banu ez nuke ezetz esango»

musikarekin eta pena asko emazidan mundu hau uztea. Zortzi urte nituela pianoarekin hasi nintzen eta urte batzuk beranduago akordeoia ezagutu nuen. Instrumentu honekin gusturago aritzen nintzen, baina, hala ere, pianoa karrera amaitu nuen. Garai horietan egoera desberdina zen eta oso

zaila zen musikatik bizitzea, horregatik, ezkondu nintzenezan musika uztea erabaki nuen. Bestalde, zenbait ikasleri pianoa eskolara ematen hasi nintzen baina segituan uztera behartuta ikusi nuen nire burua. Lanak lehenetsatzen eta ez nuen beste aukerarik.

Ze desberdintasun ikusten dituzun zure garaia eta egungoa alderatzen badituzu?

Egun erraztasun gehiago daude eta musikariek ordu gehiago sartzen dituzte. Gainera, prestakuntza ematen dute eta akordeoia jotzen hobetoago dira. Une honetan abestiak eta emanaldiak teknikoagoak dira eta ni melodikoagoa nintzen. Merkatua zabaltzen da eta orain ehunka artista daude, nire garaian oso jende gutxi zegoen eta Espainia guztian akordeoia jotzen zuten 3 edo 4 neska zeuden bakarrik. Halaber, musikaz bizi diren musikari gutxi daude oraindik eta gehienek laukoteak osatzen dituzte emanaldiak emateko.

Transernio Txapelketako lau partida jokatu dituzte gaur Adunan

ERREDAKZIOA

VI. Transernio Pilota Txapelketako hainbat partida jokatu ziren joan den astean. Maila guztietako pilotariak aritu ziren lehian Adunako pilotalekuan.

Ostegunean alebin eta infantilen txanda izan zen. Lehendabizikoean, Villabonakoak gailendu zitzaizkien Lasartekoei, 16-8ko emaitzarekin. Bigarren partida Azkoitia eta Alegiakoen artekoa izan zen. Hemen berriz, 16-5 galdu zuten eskualdekoak. Azken partida, Amezketa eta Villabonakoen artekoa izan zen. Hemen 18-7 izan zen markagailuko azken emaitza, billabonatarren alde.

Larunbatean, benjaminetan, Bidegoangoek 16-2, irabazi zieten, Lasartekoei. Azkoitia eta Usurbilgoen artekoan, 10-16 izan zen azken emaitza. Eguneko hirugarren partida, infantilena izan zen, hemen, Bidegoian eta Azpeitia izan ziren kantxan. Honetan, eskualdekoak izan ziren garaile, 18-17 egin da. Azkenik, kadeteetan, Bidegoianek erraz irabazi zion Villabonari, 22-3koarekin.

Gaur partida gehiago izango dira 19:00etatik aurrera. Alebinetan, Añorga eta Bidegoianen artekoa izango da lehen partida, eta Hernani-Aduna Brena bigarreana. Infantilen mailan, Alegia eta Villabona B-ren partida ikusi ahal izango da. Jarraian, Añorga eta Azkoitiaren artekoa. Etzi eta larunbatean ere norgehiagoga gehiago izango dira.



20 domina etxeratu dituzte Tolosaldea Igeri Kirol Taldekoek. HITZA

Tolosaldea IKTko neskek irabazi dute Euskal Herrikoa

Tolosa » Santurtzin jokatu zuten infantilen mailako txapelketa, joan den asteburuan, eta marka oso onak lortu dituzte.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa jokatu zuten aurreko asteburuan infantilen mailan. Santurtzin izan ziren probak, eta bertan Tolosaldea Igeri Kirol taldeko neskek garaile izan ziren. Mutilak berriz, hirugarren geratu ziren sailkapen orokorrean, eta azpitxapelketan, sailkapen bateratuan.

Erreleboetan, neskek gailendu ziren, eta bostetatik lau irabazi zituzten, denbora oso onak eginez. Bestalde, mutilak, bigarren postua erdietsi zuten hiru errelebotan.

Orotara, banaka 20 domina etxeratu dituzte igerilariek. Horietatik 12 urrezkoak, 5 zilarrezkoak eta 3 brontzezkoak.

Banaka egindako lana kontuan hartuta, nabarmentzekoak dira Jokin Otaegi eta Marta Alonsorena. Izan ere, lehendabizikoa 200 eta 500 askeetan, irabazlea izan zen, denbora oso ona eginaz. Alonsorri berriz, 100 askekoan eta 200 bizkarrez eran garaile izan zen.

Denbora oso ona lortu zuen ere Maria Mansok 50 eta 100 bizkarrezkoan. Espainiako lehendabizikoa izan zen, gutxieneko denboraginaz. Txapelketa honetan parte hartu zuten ere, eta marka oso onak lortu, Iñaki Carrera, Olaia Cuadrado, Zuriñe del Pozo, Ane Manso, David Rodríguez, Ivan Gabirondo, Maria Muñoz, Laura Gabirondo eta Iñaki Muñozak.



Alberto Vazquez podiumaren erdian Espainiako Txapelketa irabazita. HITZA

Alberto Vazquez garaile, Espainiako Triatloi Txapelketan

Tolosa » Mahala TTTko kirolariak asteburuan jokaturako probak irabazi ditu distantzia luzean; 30-34 urte bitartekoetan.

ERREDAKZIOA

Emaitza paregabeak lortu dituzte Mahala-Tolosaldeko TTko kideek asteburuan jokaturako probetan. Alberto Vaquero Espainiako txapelidun geratu da distantzia luzean (750m-30-34 urte bitartekoan) mailan. Saio ikaragarria burutu zuen. Igeriketa eta bizikletako ataletan bera izan zen denborarik onenak egiten, eta korrikako saiora lehenengo postuan iritsi zen bakarrik. Hala, horrek eta ordu arte zuen abantailak, korrikakoan indarrak ongi neurtzeko aukera emana zion. Guztira 6 ordu 36 minutu eta 10 segundoko denbora behar izan zuen 4 kilometro igerian, 120 km bizikletan eta 30 km korrika egiteko.

Bertan parte hartu zuten gaitzoko taldekideek ere sasoioko zeudela eta indartsu iritsi zirela txapelketa honetara erakutsi zuten. Horrela, Igor Aranburu 12. sailkatu zen, Aritz Aranzegi 18., 19. Edu Gonzalez. Sera Tena ere 12. ailegatu zen helmugara. Hori bai, bakoitza adin maila ezberdinean lehiatu zen.

Egun berean baina ordu desberdinean, Barakaldon zen Euskadiko Zirkuitoko azken triatloia. Bertan distantzia sprint-eant (750m-20km-5km), Aitor Regillaga 3. izan zen helmugara iristen. Igerian atzera samar ateratzen bizikletako saioan bera izan zen denborarik onena egiten, Korrika ere 2. denborarik onena berea izan zen. Baina azkenean lehenengo postua 42 segundora geratu zitzaion.

Emaitza hauek, urte borobil baten beste emaitza ikusgarri batzuk dira. Hauek, udan aurretik dituzten beste hainbat probetarako pizgarri ere izango dituzte.

Bihar eta larunbatean, 'Breve encuentro' filma ikusgai

Tolosa » Aste honetan bi izango dira zine-forumeko saioak. Bertan 1945an estreinatutako lan hau izango da ikusgai.

ERREDAKZIOA

Uda honetan zinema joateko aukera izango da Tolosan. Izan ere, oraingo honetan esfortzu berezi bat egitea erabaki du Udalak eta hainbat emanaldi antolatuta dituzten asteetarako.

Oraingo honetan, esaterako, bi egunetan izango dira zine-forumeko saioak, bihar eta larunbatean hain zuzen ere. Bihar, *Breve encuentro* filma ikusi ahal izango da jatorrizko bertsoan, 19:30etik aurrera. Baita, larunbatean, 22:30ean




'Breve encuentro' filma ikusgai. HITZA

ere. David Leanen zuzendaritzapean, 1945ean estreinatuta izan zen lan hau. Britainiar zinemaren harriztasietako bat da klasiko hau. Celia Johnson, Trevor Howard, Stanley

Holloway eta Joyce Carey dira bertako protagonistak. Istorio erromatiko honek, etxeko kontakizun arrunt eta xume bat kontatzen du. Kasualitatez, ezkontutako emakume eta gizonezko bat, elkar topatzen dira tren geltokian. Biak ere, lantokira zihoazenean. Hasierako laguntasuna, maitasun istorio handi eta debekatu bilakatu delarik.

Bestalde, igande eta astelehenean, *Millenium: los hombres que no aman a las mujeres*. Izen bereko eleberritopetuan oinarrituta dago filma. Niels Arden da Thriller honen zuzendaria. Honela abiatzen da istorioa, bertan, enpresari aberats batek duela 40 urte desageratu zen ilobarekin zer gertatu zen ikertzeko eskutatu dio kazetari bati.



**EUSKAL JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Irrintzi elkarteko zenbait kide, Garagardo Azokaren aurtenko kartela eskuetan dutela, barraren aurrean. I. GARCIA

Garagardo egarria asetzeko aukera bihar hasi eta igandera arte

Villabona » Irrintzi elkarteak antolatzen duen 13. Garagardo Azokaren atea bihar irekiko dituzte Txermingo Ikastolan.

IMANOL GARCIA

Gipuzkoako bigarren Garagardo Azoka zaharrena da Villabonako Irrintzi elkarteak antolatzen duena. Aurten 13.a da eta lau egunez izango da zabalik: bihar hasi eta igandera arte. Txermingo Ikastolan antolatzen dute eta 18:00etatik 01:00etara izango da zabalik.

Hainbat urtetan antolatzeak bere alde onak dituela eta alde txarrak ere izan daitezkeela dio Agustin Laskurainek, Irrintzi elkarteko kideak eta Garagardo Azokaren koordinatzaileak: «Alde ona da eskarmentua dugula eta badakigula nola egin behar ditugun ematen digu. Alde txarra izan daiteke lasaitasun horrek gehiegi lasaitzen badigu eta gero zezenak harapatzen bagaitu».

Txermingo Ikastola Garagardo Azokarako prestatzen hasi ziren aurreko hilean. Orduan, Ikastolako festarako eguzki-oihal batzuk jarri zituzten. Geroago falta zirenak jarri zituzten eta aurreko ostiralean ekin zioten beste azpiegitura guztiak jartzeari. Aste honetan goiz eta arratsaldez ari dira lanean. Laskurainek azaltzen duenez, «lanera etortzen denak badaki zer egin behar duen eta hori abantaila bat da».

Berritasunak

Garbi dago aurten Irrintzi elkarteak Garagardo Azokarekin ateratzen duen dirua elkarteko lokala berritzera bideratuko duela. Sutea izan zuten eta lokala erabili ezinik

daude oraindik. Egun, lokalaren lanak amaitu bitartean, Behar-Zana elkartearen lokala erabiltzen ari dira. Irrintzikoek Behar-Zanaren irudia jarri dute aurtengo kartelean, eskerrak emanez jaso duten laguntzaren gaitik.

Aurtengoan izango da berritasunik bai jatekoan eta edatekoan ere. Janariari dagokionez, Olagarroa galiziar erara eta langostinoak baratzuri erara dastatzeko aukera izango da. Hala ere, ohi denez, saltxitxak eta ukondoa izango dira eskatuena. Garagardoei dagokionez, Desperados mexikarra eta Mahou edateko aukera izango dute garagardozaleek. Guztira 22 garagardo mota izango dira.

Zeliakoentzat ere bai

«Bazkide batek esan zigun semeak zeliakoak zituela eta ea posible zen beraiantzako ere menua izatea», aaltzen du Laskurainek. «Informatu ginen eta ekarri ditugu saltxitxak glutenik gabe eta garagardoa zeliakoentzat dena. Datorren urtean postrea ere zeliakoentzat egokia dena ekartzen saiatuko gara».

Aldatu ez dena azken lau urtetan prezioak izan dira. Esaterako garagardo guztiak hiru euro balio dituzte. Aurtengoan ez dute espero krisi ekonomikoak eragin asko izango duenik. «Eragin gehiago izaten du eguraldiak», zehazten du Laskurainek.

Azken bi urteetan kontsumoa mantendu egin da. Iaz, 10.000 litro garagardo baino gehiago kontsumitu ziren, 2.570 ukondo eta 9.000 saltxitxak inguru. Datu horien inguruan ibiltzea espero dute Irrintzikoek. Egia esan, Villabonako Garagardo Azokak arrakasta badu bai herrian bai inguruan ere eta goiz joaten ez denak eseritzeko lekua topatzeko zailtasunik izan ohi ditu.



Nahi duzun tokira eramango zaitugu uda honetan

GARMIN nüvi 200 GPSa



Harpidedun egin zaitetz eta lortu doan GPS hau

- Kioskoan baino %10 merkeago eskuratuko duzu.
- Goizero etxean, lantokian, zure eguneroko kioskoan duzula ziurtatuko dizugu.
- Cure promozioetan (disko bildumak, liburuak, mendiko gidak...) abantaila berezietz gozatzeko aukera izango duzu.
- Astero-astero harpidedunen artean opariak banatzen ditugu.
- Mantangorri larunbatero 16 orrialdeko gehigarri koloretua haur eta gaztetxoentzat
- NORA bidaia aldizkaria hilabetero BERRIArekin
- ...

Animatu! Merezi du

HARREMANETARAKO:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

*Urte osoko harpidetzarako

» ZER JAN ETA EDAN

Garagardoak

- Guinness.
- Grimbergen Dubbel eta Cuvee de L'Ermitage.
- San Miguel Especial, 1516, Selecta eta 0%.
- Desperados.
- Mort Subite.
- Murphy's Irish Red.
- Calsberg.
- Kronenbourg 1664.
- Judas.
- Affligem Blond, Dubbel eta Tripel.
- Paulaner Salvator, horia eta gariarekin egindakoa.
- Foster's.

- Mahou.
- New Castle.

Jatekoak

- Frankfurter eta Bratwurst saltxitxak.
- Gulak.
- Entsalada alemaniarra.
- Patatak Navarrito erara.
- Ukondoa.
- Olagarroa.
- Langostinoak baratzuri erara.

Postrea

- Idiazabalgo gazta tarta.
- Sagardo tarta.
- Alustizako gazta.

E Elkarrizketa

JAWAD SAMADI, MOHAMMAD AFZAL, NOUREDINE DHIMDI ETA MOHAMMAD SAAE > Etorkinak



NEREA URBIZU

«Gure festak ezberdinak dira eta hemengoetara ohitu behar gara»

Alegia » Aurtengo festetako txupinazoa Alegian bizi diren etorkin batzuk botako dute; karmenak ezagutzen dituzte eta haietaz ere gozatzen dute.

NEREA URBIZU

Orokorrean ez daude urduri gaurko Alegiako txupinazoa bota behar dutelako, baina urte batzuk daramatzate herrian eta beheran jende ezaguna ikusteak alde batetik nolabaiteko errespetua ematen die. Jawad Samadi (Maroko, 18 urte), Mohammad Afzal (Pakistan, 28 urte), Nouredine Dhimdi (Maroko, 19 urte) eta Mohammad Sae (Pakistan, 36 urte) lau alegiar berriekin egon da HITZA egunkaria, txupinazoa botako duten seikoteko laurekin, hain zuzen. Izan ere, Peruko Beatriz eta Danitza ama-alabak ere izango dira gaur. Bestalde, Festa Batzordearen ikuspuntutik «esperientzia oso polita» izan dela adierazi dute, «proposamenaren berri ematea» bezala. «Ilusioz hartu dute gonbitea, nahiz eta hasieran ez zuten oso argi ikusten euren egitekoa. Txupinazoa nolako izango den denon artean adostu dugu. Gehienek ez zekiten txin-txarriaren igoera zergatik egiten den... Politza izan da beraiekin elkartzea».

Urduri al zaudete txupinazoaren unearengatik?
Denek. Ez, lasai gaude momentoz.
Jawad Samadi. Ni pixka bat bai. Jendearen aurrean hitz batzuk esan beharko ditugu eta horrekur-

duritzen nau. Baina aldi berean polita izango da, herritarrekin parte hartuko dugulako. Lehen aldia da beraiekin festak egingo ditugula zentzu honetan. Desberdina da, gu ez gara hemen jaio eta gauza asko ulertu behar ditugu, kulturak oso desberdinak dira... Gonbidatu ditugenez, baietz esan behar!

Nork proposatu zizueten txupinazoa botatzearena?

J. S. Festa Batzordetik. Kultur Etxean elkartu ginen eta proposamena egin ziguten. Nik pozik hartu nuen. Festa Batzordea arduratzen da jaiak antolatzeaz eta txupinazoa nork bota ere batzordean erabaki zuten. Baina Udalaren bitartez jarri dira gurekin harremanetan.

Mohammad Afzal. Bai, gustura. Detalle polita da beraien aldetik.

Pentsatu duzue zer esan?

Mohammad Sae. Ez. Hasiera batean zerbait eman behar zidaten esateko, idatziren bat, ideien bat edo, baina oraindik [atzo arte] ez didate eman.

J. S. Esan zigutena izan zen geure ama hizkuntzan hitz egin genezake, baina gero gazteleraz edo euskaraz ere zerbait esateko. Dena dela, gutxi, gorabehera badakit zer esango dudan.

M. S. Baina nik neure ama hizkun-

tzan adibidez festetan ondo pasatzeko esaten badiet ez dit inork ulertuko...

J. S. Horrek berdin du. Arabiera ere ez dute ulertuko, gero hitz ba-

Geure ama hizkuntzan zerbait esango dugu eta ondoren zerbait gazteleraz edo euskaraz

tzuk alegiarrek ulertzen duten hizkuntzatan zerbait esanda nahikoa da. Detalle polita izango da hori.

Nouredine Dhimdi. Zer edo zer bai, pentsatu dut. Gozatzeko, ondo pasa dezaten eta horrelako gauzak.

Zergatik etorri zineten Alegiara bizitzera?

M. S. Lanarengatik. Hemen egonda gauzak ikasten ari naiz eta etxe-

ETZIKO HERRI AFARIRAKO 150 TXARTEL SALDUTA, ORAINDIK ERE SALGAI

Etzi Alegiako karmeneta herri bazkaria egingo dute herriko plazan, 21:00etan hasita. Oraingo 150 lagun elkartuko dira bertan baina oraindik ere txartelak eros daitezke Kultur eta Kirol Etxe-
an.

20 euro balio du txartelak eta bi menu daude: vegetariano eta txekorrajango dutena bestea. Bestalde, egun berean haurren bazkarian 80tik gora elkartuko dira 14:00etan.

bizitza erosi dut bertan. Familia ere ekarri nahi dut. Hemengo eguraldia aproposa da niretzat, gustuko dut. 2001ean Espainiara joan nintzen bizitzera, Errioxan hain juxtu. Duela sei etorri nintzen Alegiara. Euskal Herrian eguraldi ona egiteaz gain, jendea atseginagoa da.

M. A. Alegian elkarrekin bizi gara, Mohammad eta biok, pisu berean. Bost urte daramatzat hemen, Alegian. Ni ere lanarengatik etorri nintzen, obran egiten dugu lan biek. Gaur egun ez dago egoera oso onean, baina tira...

J. S. Nire kasua berezia da... Duela ia lau urte Tolosara iritsi nintzen autobus batean, eta honela Marokotik alde egin nuen. Honera iristean dena desberdina da, dena berria da...

N. D. Kasualitatea izan da Alegiara etortzea. Donostian, Urmietan, Tolosan izan naiz eta hemen bukatu dit eta gustura nago hemen. Hiru urte daramatzat. Gustura gaude hemen.

Zer duzue hemen gustuko?

@ Eztabaida. «Voith Gorostidiko zozketa errepikatu behar izan zuten, zenbaki batzuk bonboan sartuta ez zeudelako. Ordurako 55 etxebizitza banatuta zeuden eta hauek baliogabetu zituzten. Nola uste duzu konpondu daitekeela hau?» Sar zaitetz webgunean eta eman zure iritzia besteekin ere ikusiz!

www.tolosaldeko hitza.info

J. S. Niri gauza bat bereziki gustatzen zait: gaur herriko festak hasiko dira, ondoren udan jendea entrenatzen hasiko da adibidez futboleko, udazkenean beste zerbait egongo da... Jendea ez da asperitzen, eta gauza askotan har daitezke parte. Dena den, nik Marokoko klima nahiago dut hemengo baino.

N. D. Tangerren uda iristen denean uda da, eta ez uretan zaudenean handik atera eta euria hasi, hemen egin dezakeen bezala: hemen aldaketa asko daude. Herriak lasaiak

Euskal Herrian eguraldia da gustukoena duguna eta jendea orokorrean atsegina da

dira, ez dago nolabait esatearren, estresa. Ni hiritarra naiz eta hemengo lasaitasuna gustatzen zait, orokorrean inguruko herrietan ere dagoena.

M. S. Hemen nire lurraldean baino lan gehiago dago eta hemen bizi den jendea langilea da. Lehen esan bezala, Euskal Herriko eguraldia ere gustatzen zait.

M. A. Mohammad-ekin ados nago, berdin pentsatzen dut.

Beraz, urte hauetan Alegiako festak ezagutu ahal izan dituzte.

M. S. Festak gustatzen zaizkit baina ez naiz asko ateratzen, ez nago ohituta gainera. Beste hauek gazteak dira eta horregatik ere errazago da harremanak egiten hastea. 36 urte dauzkate eta ez daukate behar hori ere.

M. A. Jendearrekin hitz egitea gustatzen zait, bromak egitea... Dena gustatzen zait, paseoa ibiltzea, hitz egitea, jendearrekin egotea, jatea...

J. S. Lagunekin ateratzea gustatzen zait eta ondo pasatzea, gauean parranda egitea.

N. D. Parranda egitea gustatzen zait ere, gozatzea eta gorputzak gehiago ezin duen arte aritzea, gero lotara leher eginda sartzeko.

Beraz, gustura zaudete herrian?

M. S. Bai, herri txikia izatearekin jendea ezagut dezakezu, agurtu, hiri batean ez bezala.

M. A. Pakistanen ere herri txiki batean bizi ginen. Jendea ezagutzeko errazagoa da, Pakistanen bezala.

J. S. Hirian bizi izan naiz txikitana eta herrira joateak aldaketa suposatzen du, baina ohitze kontua da. Dena dela hasieran zaila da, zure lekua bilatu eta aurkitu arte.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Villabonan etxebizitza alokairuan, altzariekin eta prezio onean. Harremanetarako eta gehiago jakiteko telefono zenbakia: 659 94 86 25.



Villabonako ezker abertzaleko hautetsiek, ezker abertzaleko kideek eta Santiago egoitzako egoiliarren familiaretekoekin zuten agerraldia. R. CALVO

Udalak ez du soldaten parekatzea egingo «ez baita gure eskuduntza»

Villabona » ELAK helburu sindikalez haratago «helburu politikoak dituen estrategia» garatu duela salatu du ezker abertzaleak.

REBEKA CALVO

Amasa-Villabonako ezker abertzaleko ordezkariak eta Santiago zaharren egoitzan familiarrak dituzten senideek lagunduta eskaini zuten atzokoan prentsaurrekoa Udaleko ezker abertzaleko hautetsi independentistek. Hauen izenean, Josune Arretxek hitz egin zuen, Ongizatea eta Emakumea Batzordeko lehendakaria, hain zuten, ondoan, Maixabel Arrieta alkatea zuela.

Lehenik eta behin, ELAK Villabonako garatu duen «helburu politikoko estrategia» salatu zuten, «bestela ez dira ulertzen inolaz ere kutsu sindikalik ez eta kutsu politikoa garbia duten irain eta gezurak, Maixabelen aurka lehenik, eta ezker abertzale osoaren aurka, ondoren».

Eskuduntza

Horiek horrela, ezker abertzaleak «garbi esan die eta garbi esaten jarraituko du» Villabonako Udalak ez duela Santiago zaharren egoitzako langileen soldata udal-langileek dutenekin parekatuko, «arrazoi desberdinak egonik ere bada nagusia dena; ez dela Udalaren eskuduntza».

Arretxek beraiek udalbatzara iritsi aurretik ere Udalak Foru Aldundiarekin hitzarmena akordatu zuela gogoratu zuen, eta ondorioz, Udalaren egitekoak bi direla nabarmendu zuen: «Egoitzaren kudeaketa, hau da, zerbitzua eskaintzea, eta zerbitzu hori kalitatezkoa izatea».

«Gauzak honela bertako zerbitzua kudeatzeko enpresa bat dago izendatua eta bertan lan egiten dutuzten langileak ez ditu Udalak kontratatzen enpresa horrek baizik. Enpresa horri ekarpen nagusia Foru Aldundiak egiten dio, bere ardura bertan dauden egoiliarren egoeraren inguruko jarraipenak eta esleipenak finkatzea baita, hau da Foru Aldundiak zehazten ditu kuotak», gaineratu zuen Ongizatea eta Emakumea Batzordeko lehendakaria.

Udalaren egitekoa zentzu honetan, «Villabonako erroldatuta dauden herritar autonomoi- menpekotasunik ez dutenei- kuota ordaintzeko diru nahikoa ez badute hau ordaintzea da».

Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboa, geldirik

Arretxek, era berean, Gipuzkoako mailako Hitzarmen Kolektiboa geldirik dagoela esan zuen.

«ELA mahaitik altxa zen, antza ez Foru Aldundiarekin eta ez patronalarekin zereginik ez duelako ikusten, eta horrenbestez bere borroka herriz herri hastea erabaki du», esan zuen. Sindikatuak, or-

dea, borroka egiteko Villabona aukeratu izana gaitzetsi zuen: «Zergatik Tolosan arazo berdina izanda ez dute halakorik prestatu? Uste dugu arrazoiak nabarmenak direla: Tolosako alkatea Jokin Beldarratz da».

Ezker abertzaleak ez ELAri ezta Santiago egoitzako langileen eskaerei zilegitasuna ez diela ukatuko esan zuen Arretxek, «baina euren jomuga Udala jarri dute eta argi izan behar dute Foru Alduniarena dela zeregin honetan jo behar dutenare».

Hiru bilera

Prentsaurrekoan orain arte ELA-rekin hiru bilera izan dituztela esan zuten eta baita ezker abertzalea Foru Aldundiaren aurrean «behar den borroka» egiteko prest dagoela ere, baina «sindikatuak bat eginik, Foru Aldundiari eta patronalari aurre egiteko eta euren esku dagoena egin dezaten eskatzeko». ELA aldiz «herriz herriko gatazka orokorra» egin nahi duela salatu zuen eta helburu bakarra dutela: «Ezker abertzalea deslegitimatzeko eta iraintzea».

942.000 euroko aurrekontua

ELA «gezurretan» ari dela ere esan zuen zinegotziak, izan ere, «PPren politika berbera egiten ari omen gara, neoliberalak omen gara», baina ezker abertzaleko kideak «Villabonako Udalak ezker abertzalea dagoen bitartean gizarte politika aurrerakoak egiten jarraituko du, orain arte egin duen bezala».

Horren adibide da, Arretxeren hitzetan, aurtun 942.000 euroko aurrekontua dutela gizarte politiketarako, horrela «gehien behar duen herritarren oinarriko kalitate hobetzeko».

ELAK «promesa faltasuekin»

langileei iruzur egiten diela ere esan zuen. «Jakina da administrazio publikoan lan egin nahi duen orok oposaketa publiko bidezko lehiaketak gainditu behar dituela. Villabonako Udal langileekiko parekatzea eskatzea iruzur ederra da, lehenik eta behin gaur gaurkoz langile horietatik ia inork ez lukeelako oposizio lehiaketa hori gaindituko, hizkuntza perfila, esate baterako. Eta bigarrenik, Udalak bere baitan ezingo luke halakorik egin, munduko borondate guztia izanda ere», argitu zuen.

Amasa-Villabonako ezker abertzaleak, era berean, ELA sindikatuari eta Santiago egoitzako langileei euren jarreraren inguruan gogoeta egiteko eta zaharren egoitzako egoiliarren eta bere oinarriko eskubideak errespetatzeko eskaera ere egin zien.

Mehatxuak

Pasa den astean ELAK deituta herritarren egindako manifestazioan sindikatuak salatuak mehatxuak ere ekarri zituen gogora Arretxek: «Gaur eta hemen Santiago zahar-etxeoko langileei eskatzen diegu esan dezatela, zeinek eta noiz eta zernolako mehatxuak egin dizkieten. Ez da bada herritarrek haserretzeko gezur borobil bat izango? Nork egin du hemen irain egoitzako langileak beraiek izan ez badira etengabe Maixabelen izena erabiliz? Nor aritu da ironiaz galdetzen Maixabel emakumea, abertzalea eta ezkertiarra al den? Horrek zer ikusteko dauka lan sindikalarekin?».

Bukatzeko «Maixabel Arrieta eta udal talde osoak bere konpromisoa agertzen du, bi urte hauetan bezala, herritarrek dituzten kezka eta beharrei bide ematen jarraitzeko», esan zuen ezker abertzaleko hautetsi independentistak.

Laburrak

Zaramagak eta Arrasatek egingo dute aurrera

AMEZKETA » Asteburuan XX. Joxean Tolosa Txapelketako partidak izan ziren. Arrasatek 3-0 irabazi zion Usurbili: kadeteetan Etxagibel 18, Zinkunegi 12; gazteetan Bolinaga 18, Santxo 15 eta nagusietan Lazkano 18, Esnaola 3. Beraz, Arrasateko hurrengo aurkaria Oberena izango da. Gauen Olazti eta Zaramaga neurtu ziren eta gakoak zen kadetetako partida «oso ona» egin ondoren, Zaramagak irabazi zuen 2-1. Kintana 16, Saenz de Urturi 18; Etxeberria 18, Uriarte 8 eta nagusietan Perez II.a 18, San Vicente 4. Zaramagak Amezketa menderatu beharko du hurrengo kanporaketan.

Urrezko Aizkolari Txapeladunen jardunaldia

LEABURU » Anjel Arrospide Urrezko Aizkolari Txapeladunen Ligako sailkapen orokorreko 2. postuan dago hiru puntuekin. Hirugarren jardunaldia etzi izango da Zornotzan (Bizkaia) eta bertan Arrospide gain, Donato Larretxea eta Juan Jose Lopez Azpilikueta ere ariko dira.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbol: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxi: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltegia: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb. 11 behean - TOLOSA
Mag.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Josetxo Urrutia eta Lazaro Bujan leitzarrak Nafarroako txapelketetan

Herri kirolak » Urrutia Orga Jokoan eta Ingudearekin gelditu zen; Bujanek 4. postuan amaitu zuen Ingude-jasotze lehia.

ERREDAKZIOA

Iruñeko sanferminen baitan hainbat herri kirol txapelketa jokatu dira Foruen Plazan. Horien artean Nafarroako Orga Joko eta Ingude-jasotze txapelketak jokatu ziren iragan asteburuan. Bi leitzar bertan egon ziren lehian, nahiz eta txapelik ez lortu.

Lazaro Bujan ingudearekin ibili zen eta Josetxo Urrutia berriz bi herri kirol txapelketa hauetan presente egon zen.

Orga Joko Txapelketa

Sanferminetako herri kirol jaialdian, igandean, Nafarroako Orga Joko Txapelketa jokatu zen. Bertan iazko txapelkunak eutsi zion txapelari; hots, Joseba Petrirenak. Beratarak 140 kiloko orgari 6 itzuli eta 11,16 metro eragin zizkion.

Bigarren postuan herri bereko Mikel Pikabea gelditu zen. Beratarak 6 itzuli eta 5,27 metro egin zituen. Hirugarren postuan Josetxo Urrutia leitzarra gelditu zen, 4 itzuli eta 4,10 metroekin.

Harri jasotzen, txinga-eroaten, orga jokoan eta baita ingude-jasotzen ere. Izan ere, Josetxo Urrutiak aurreko egunean Nafarroako Ingude-jasotze Txapelketan hartu zuen parte Lazara Bujanekin batera.

Ingude-jasotze Txapelketa

Iturengo Jokin Aioroak eta Maika Ariztegik irabazi zuten Nafarroako Txapelketa, nola gizona zoketan hala emakumezoketan. Aioroa txapelkunorde gelditu zen iaz eta aurtun jantzi du txapela lehen aldiz. Ariztegik, berriz, 2004an lortu zuen bere markarik onena, 83 jasoaldirekin. Asteburuan jasoaldi batera geratu zen.

Leitzarrei dagokienez, 18 kiloko ingudearekin eta minutu eta erdiko txandan, Josetxo Urrutia 3. postuan gelditu zen, 87 jasoaldirekin. Lazaro Bujanek 78 jasoaldi egin zituen eta 4. amaitu zuen.

Nafarroako errekorra 93 jasoaldikoa da, eta Aioroa aurtengo txapelkunak bi jasoaldi gutxiago egin zituen.



Ludotekakoen azken entzierroa

ARESO » Iruñeko entzierroekin batera amaitu ziren atzo Aresokoak. Goizean Plaza Zaharrean bildu ziren Ludotekako haurrak eta aurtengo sanferminetako azken abestia kantatu zuten bertan. Ondoren bi zezen askatu zituzten begiraleek, bat gurgilduna eta bestea gorputz gabeko arduduna. Ludotekako haurrak korrika batean ekin zioten parkerainoko ibilbideari. Aresoko azken entzierroa, aurrekoen moduan, garbia eta azkarra izan zen. **HITZA**

Plazako XVII. Txapelketaren finala etzi jokatuko dute Leitzako plazan

Pilota » Finala Zeballos-Iriartek eta Aldaia-Olanok jokatuko dute; aurretik hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dira.



Leitzako XVII. Plazako Txapelketaren finala jokatuko da etzi. JAIONE ASTIBIA

ASIER IMAZ

Pilotaketenik ez du Leitzan: profesionalak, federatuak eta afizionatuak; denek dute euren txokoa herri honetan. Herriarteko finalaren ondoren, orain Leitzako XVII. Plazako Txapelketaren azken partidaren txanda da.

Festa 19:00etan hasiko da

Urteroko txapelketa herrikoia finala etzi jokatuko dute Joanes Zeballos-Mikel Iriartek eta Igor

Aldaia-Unai Olanok. Aurretik ordea, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte Asier Garzia-Larraiak eta Zubillaga-Zubillagak.

Herri pilotaren jaialdia 19:00etan hasiko da. Bi partidak, txapelketaren izenak dioenez, Leitzako plazan dagoen frontoian jokatuko dira.

Leitzatik Xiberoara Eskalada Irteera

A. IMAZ

Mendibil Mendi Taldeak eskalatazailentzat eta ez direnentzat irteera antolatuta du asteburuan. Xiberoako Argibel mendira joango dira hilaren 18an eta 19an eta eskalada irteera honetara «edozein joan daiteke, ez da beharrezkoa eskaladan esperientziarik edukitzea». Hori bai, «derrigorrezkoa da federaturik egotea». Kirol hau egiteko behar den materiala menditaldeak jarriko du.

Izena emateko azken eguna

Xiberoara joan nahi duenak izena hilaren 16a, etzi, baino lehen eman beharko du Astiz, Maimur edo mendibilaurrera@hotmail.com helbidean.

Leitzatik 07:00etan irtengo dira larunbatean. Otorduak norberak eraman beharko ditu etagaua aterpe batean pasako dute: bazkideek 10 euroren truke eta ez direnek 12tan. Informazio gehiagorako: mendibilaurrera.nireblog.com.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

HITZAK Gipuzkoan **120.000** irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Alegia.** Karmen jaien hasiera: Kartel lehiaketan parte hartu du ten marrazkien erakusketa 18:30ean udaletxeko arkupetan, erraldoi eta buruhandiak, *Euskal presoak Euskal Herrira* kontzentrazioa eta txupinazoa 19:00etan; 20:00etan, Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzen kontzertua elizan (aurretik, 19:45ean, Pedro Joxe Iguainen *Salve Regina* abestuko dute); afaria 21:00etan eta Elvi-savueloren kontzertua 23:00etan plazan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketa eta Pelex artistaren *Hotsez Hots* eskultura erakusketa Aramburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Tailaila osoan Zumarragako Itziar Albiuaren oleoak ikusgai Lanbroan: paisaiak, zuhaitzak, bodegoiak, ... marraztu ditu.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Tailerrak gazteentzat: gaur filma proiektatuko dute eta etzi merendola eta karaokea. Izen-ematea, Topagunean.
■ **Tolosa.** Zuentzart eskulan denda, udarako eskulan ikastaroak antolatuko dituzte. Taldeak umeentzat nahiz helduentzat irekiak daude. Izen-ematea denda edo 676140622 telefonon.
■ **Tolosa.** Soldadura, mekanizatua (torno, fresadora, taladro edo CNC) eta ostalaritza ikastaroak antolatuko ditu Peñasal fundazioak datorren ikasturterako 16 eta 18 urteko gazteentzat, 2.000 ordukoak (500 orduko praktikak). Izen-ematea, fundazioan bertan egin daiteke (Usabal industria-gualgunean).
■ **Tolosa.** Zerbeza edateko festa izango da Berazubini hilaren 18an (zerbeza mota desberdinak, kodillo eta saltxitxak, 5 euro). Izen-ematea, Berazubi elkartearen bertan.
■ **Tolosa.** Udako liburategia Usabal igerilekuan, astelehenetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara, irailaren 12ra arte.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikoko arbola, 3. 943 651040.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Futbolaren harira, jai giroa

Anoeta » IV. Futbol Txapelketa egingo dute hilaren 18an, larunbatean, plazako futbol zelai gorrian; zazpi talde ariko dira lehiatzen.

ERREDAKZIOA

Anoetako Gazte Asanbladak eta herriko futbol taldeek IV. Futbol Txapelketa antolatu dute, hilaren 18rako, larunbaterako. Anoetako plazako futbol zelai gorrian jokatuko dituzte partidak herriko koadrilaren artean. Futbol partidez gain, taberna txiki bat eta zozketa ere prestatua dute ere nabarmendu dute antolatzaileek.

Finala, 18:00etatik aurrera

Guztira zazpi koadrilek eman dute izena futbol txapelketan: Session, Otezuztarrak, Sardekirtenak, Bakstrud Boys, Panzer, Azkar eta Satorrak Arrastaka. Lehen fasea goizeko 09:00etan hasiko da eta 15 minutuko partidetan taldeak elkarren aurka ariko dira, 13:40era arte. Lehen faseko partidak hauek dagoeneko zehaztu dituzte.

Lehen fase honetatik bi finaler-



Laugarren urtez antolatuko dute futbol txapelketa. HITZA

diak aterako dira. Bi partidak hauek 16:00etan eta 17:00etan jokatuko dituzte, 20 minutuko bina zatik osatuko dutelarik partidak. Finalerdi bakoitzean irabazleek final handia jokatuko dute, 18:00etatik aurrera.

Epaile lanetan koadrilak ariko

dira, eta bi taldeen arteko berdinketa dagoenerako hainbat arau zehaztu dituzte aurrez antolatzaileek, sailkapena nola geratuko den finkatzeko.

Hala, lehen fasean, bi taldeen arteko emaitza hartuko da kontuan lehenik. Ondoren, gol aberage de-

» IV. FUTBOL TXAPELKETA

LEHEN FASEA

Partidak	Ordua
Session-Sardekirtenak	09:40
Otezuztarrak-Bakstrud Boys	09:35
Panzer - Satorrak Arrastaka	10:10
Azkar - Otezuztarrak	10:45
Session - Panzer	11:20
Sardekirtenak - Satorrak Arrastaka	11:55
Bakstrud Boys - Azkar	12:30
Session - Satorrak Arrastaka	13:05
Sardekirtenak - Panzer	13:40

FINALERDIA

Partidak	Ordua
2. taldeko 1.a - 1. taldeko 2.a	16:00
1. taldeko 1.a - 2. taldeko 2.a	17:00

FINALA

Partida	Ordua
2. taldeko 1.a - 1. taldeko 1.a	16:00

lakoari erreparatuko diote. Hirugarren irizpidea aldeko golakizango dira eta azkenik penalti jaurtiketa. Finalerdietan eta finalean, aldiz, penalti jaurtiketak hartuko dituzte kontuan.

A Agurrak



Urte askoan!

Markel Fernandez De Lezea Lataburu (Tolosa). Gure etxeko txikiak gaur urtebete. Muxu asko aitatzko, amatxo eta familia guztiaren partetik.

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa